

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



Oroitzapenak desagertzen direnean, benetan itzul zaitezke etxera?

Floyd Skloot

Joane Zabala, Naroa Sagastizabal, Maialen Agirre eta Alazne Fernandez gara, Uribekosta BHiko 2. batxilergoko ikasleak. Startinnova plataformaren bitartez, gure egitasmoa, **Sustraiak** enpresa deritzona, aurkeztera gatoz. Ideia hau etorkizun batean gure bizitzeko modu bilakatzeko asmoz.

Gaur egungo, gizarte gero eta nagusiago honetan, hainbat beharizan daudela ohartu gara, bereziki **memoria** inguruko arazoetan. Alzheimerraren inguruko hainbat aurrerapen egiten ari diren arren, gaixoen egunerokoan inplikazio gehiago egon behar dela uste dugu.

Gure nortasuna, bizi izan ditugun egoeren metaketa bat dirudigu, horregatik, memoria arazoak lantzeko giltza **oroitzapenak** direla sinesten dugu. Horretarako, metodo berri baten bitartez (oroitzapenen bilketaren bitartez egiten dena) gure bezeroen egunerokoa erraztu nahi dugu. Honi, **Gu-geu** izena jarri diogu, izan ere, gu oroitzapenez eginda gaude. Horretaz gain, beste hainbat zerbitzu eskaintzera gatoz, terapiak eta irteerak, gizarte ongizatea sustatuz.

*... eta bizitza zutaz ahaztu dela uste duzunean, **Gu-geu** ak gogoraraziko dizu nor zaren.*